



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

VI. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2025eko maiatzaren 28, 29 eta 30a
Bilbo, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 4.0

GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

**Lizarra, euskara eta festa:
hizkuntza bat espazio bila**

Ainhua Pardina Arenaza

149-156 or.
<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.vi.01.18>

ANTOLATZAILEA



BABESLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



LAGUNTZAILEAK



Lizarra, euskara eta festa: hizkuntza bat espazio bila

Ainhua Pardina Arenaza

UPV/EHU, ELEBILAB

ainhoa.pardina@ehu.eus

Laburpena

Lan honetan hizkuntza sozializazioaren ikuspegitik Lizarrako gazteen euskaltzaletasuna nola eraikitzen eta egikaritzen den aztertzea helburu duen doktorego tesi baten zati bat aurkeztuko da. Artikulu honen helburua tesiaren helburua lortzeko urrats bat ematea da, batez ere Lizarran jai giroan kaleetan zehar euskarak duen presentzia nolakoa den ikusiz eta, bestalde, euskarak presentzia handiena izan dezakeen aisialdi-espazioak identifikatzeko lehen urratsa emanez, tabernak eta kanpina behatuz. Egindako 16 behaketen emaitzek erakusten dute gaztelania nagusi dela, baina euskarak pertsona batzuen inguruan eta espazio konkretuetan presentzia duela. Gainera, Euskal Herriko beste txokoetako euskaldunek eta kultur adierazpideek garrantzia dute herrian euskarak duen presentziari dagokionez.

Hitz gakoak: Lizarra, behaketak, hizkuntza sozializazioa, euskararen presentzia, jai giroa

Abstract

This work presents a part of a doctoral thesis that aims to analyze, from the perspective of language socialization, how the Basque language affinity of young people in Lizarra is built and practiced. The goal of this article is to take a step toward achieving the thesis's objective, primarily by observing the presence of the Basque language in the streets during festive events in Lizarra and, secondly, by taking the first step to identify leisure spaces where Basque may have the greatest presence, observing some bars and the campsite. The results of 16 observations show that Spanish is dominant, but Basque has a presence around certain individuals and in specific spaces. Moreover, Basque speakers from other parts of the Basque Country and cultural expressions play a significant role in the presence of Basque.

Keywords: Lizarra, observations, language socialization, presence of Basque, festive atmosphere

1. Sarrera eta motibazioa¹

Lan hau ikerketa handiago baten parte da, zehazki, doktorego tesi baten barruan kokatzen dena. Tesian Lizarrako 18-30 urte bitarteko gazte euskaltzaleak izango dira aztergai, Nafarroako eremu mistoan, hots, testuinguru oztopatzailean, gazteen euskaltzaletasuna nola eraikitzen eta egikaritzen den aztertzeke. Hala, zehazki lau azpi helburu ditu tesiak: 1) gazteen euskararen transmisio-bideak aztertzea, 2) gazte euskaltzaleen hizkuntza identitateak (taldekoak nahiz banakakoak) aztertzea, 3) gazte euskaltzaleen hizkuntza ideologiak aztertzea, eta 4) gazte euskaltzaleen hizkuntza praktikak aztertzea, espazioaren eta denboraren arabera. Hau aztertzeke, hizkuntza sozializazioaren ikuspegia erabiliko da, hau baita ikerketaren oinarri teoriko nagusienetakoa.

Hizkuntza sozializazioa hizkuntza ikasi eta hizkuntzaren bidez gizarteko kide konpetente bihurtzeko prozesu dinamikoa da (Nonaka, 2011; Ochs eta Schieffelin 1984), bizitzako edozein unetan gertatzen dena eta bizitza osoa irauten duena (Duff, 2011). Honek forma eta ibilbide desberdinak hartzen ditu ingurune soziokultural eta soziohistoriko desberdinetan. Garatzen diren ibilbide indibidual hauek, beraz, aldakorak, ez-linealak eta amaiera irekikoak dira (Garrett, 2011) eta, bertan, hizkuntza erabiltzeko eta hizkuntzaren bidez sozializatzeko praktikak barnebiltzen dira. Bizitza osoa irauten duen prozesu hau interakzioa dagoen testuinguru soziokultural eta historiko desberdinetan garatzen da, hala nola etxean, eskoletan, lanean edo aisialdian (Ochs eta Schieffelin, 2011). Gainera, batez ere hizkuntza bat baino gehiago tartean diren testuinguruetan, sozializatuak direnek hizkuntza hautatzeko aukerak ere badituztela kontuan hartu behar da (Bayley eta Schecter, 2003).

¹ Lanak EHUko Gizakiekin lotutako ikerketarako Etika Batzordeko oniritzia jaso zuen (M10/2023/322 kodea).

Sozializatzeko prozesuan zehar, ezagutzaren eta boterearen asimetriak garrantzia dute (Ochs & Schieffelin, 2011). Hain zuzen ere, hizkuntza sozializazioak hizkuntza praktikez gain, kultura-balioak, ideologiak eta botere-harremanak ere barnebiltzen dituen (Riley, 2011), eguneroko praktika komunikatiboa da hizkuntza sozializazioaren ikerketaren testuinguru gogokoa (Garrett, 2011:522).

Ikuspegi hau ardatz hartuta, esan bezala, Lizarran kokatuko da tesia eta, beraz, baita artikulua ere, non euskararen biziberritze prozesua abian dagoen; izan ere, alde batetik, 1980ko hamarkadan ezarritako euskarari buruzko legediaren eta zonifikazioaren ondorioz, Lizarra eremu mistoan kokatuta dago eta, beraz, bertan euskara ez da guztiz ofiziala, nahiz eta badaukan gutxieneko lekua. Hain zuzen, eremu honetako hizkuntza-araubideak hainbat alderdi arautzen ditu: 1) Toponimiari dagokionez, toponimo ofizialak mantendu egiten dira, baina euskarazko jatorrizko izena dutenean, bi izenak (euskarazkoa eta gaztelaniazkoa) erabiliko dira; 2) administrazioak erabaki dezake zein lanpostutan den euskara derrigorrezkoa eta zeinetan merezimendu gisa balioztatuko den eta, horren arabera, herritarrak Administrazio Publikoetara euskaraz edo gaztelaniaz zuzendu daitezke; 3) hezkuntza-eremuan, euskarazko ereduak eskainiko dira eskaeraren arabera, eta euskara irakasgai gisa emango zaie hala nahi duten ikasle ez-unibertsitarioei. Beste alde batetik, bertako euskara XX. mendearen hasieran galdu zen Dufurren (2012) esanetan, baina Kasaresek (2014) Iruñerriaren kasuan esaten duen bezala, 1960-1970 hamarkadetan euskararen galera horri buelta eman eta biziberritze zantzuak agertzen hasi ziren; izan ere, euskararen aldeko jarrerak indartu ziren, 1960ko hamarkadako euskararen irakaskuntzari (ikastolen eta gau eskolen bidez) hasiera eman zitzaion eta 1970eko hamarkadan ikastolen gizarte mugimendua sendotu zen, eta D eredu publikoa 1995ean ezarri zen herrian (Dufur, 2012).

Beraz, Lizarrako testuingurua bereziki interesgarria da euskararen erabilera eta biziberritzearen ikuspegitik, bai bere historia linguistikoarengatik, bai bertan dauden dinamika sozial eta kulturalengatik ere. Hain zuzen, herriko jaiak eta aisialdi giroa aukera paregabeak dira hizkuntzaren erabilera informalak eta hiztun berrien hautuak hobeto ulertzeko. Bestela esanda, jai giroan eta espazio informaletan euskarak duen presentzia aztertzeak aukera ematen du hizkuntza-praktiken, diskursoen eta komunitate-dinamiken inguruan sakontzeko. Gainera, kultur jarduerak (musika, bertsolaritza, euskal dantzak...) hizkuntza gutxituen presentzia soziala eta ikusgarritasuna bermatzeko tresna eraginkorrak eskaintzen dituzte.

Hori guztia dela eta, Lizarrako kaleetan euskarak izan dezakeen presentziaren oinarritzko klabe batzuk identifikatu nahian, lan honetan Lizarrako jai eta aisialdi espazioetan euskarak zein leku duen aztertuko da, etnografiaren bidez egindako behaketetan oinarrituta. Hau euskal antropologian oso erabilia den metodologia bat da, etnografiak zehazten duen jarraibideetako bat baita (Altuna, 2023). Ikuspegi metodologiko honek, aipatu bezala, euskararen erabilerari buruzko xehetasun zehatzak eta erabilgarriak jasotzea ahalbidetzen du, bestelako testuinguru oztopatzaileetarako ere erreferentzia izan daitezkeenak. Hala, alde batetik, herriaren erradiografia bat egitea ahalbidetu du, honakoak aztertuz: herriaren antolaketa; zerbitzuen kokapena; kale-bizitza; bilguneak; pertsonen arteko harremanak; elkarriketak eta, azkenik, hizkuntza-paisaia. Beste alde batetik, tesian aztergai izango diren gazteak bizi diren herrian testuinguru jakin batzuetan euskarak zer nolako presentzia duen ikustea ahalbidetu du. Bestela esanda, aurrerago tesiko parte-hartzaile izango diren gazteen hizkuntza sozializazioa ezagutzeko lehen hastapenak aztertuko dira artikulua honetan, aurreragorako utziz alde batetik, ikastola edo dantza-taldea bezalako eremuen, hots, euskararen presentzia altua espero daitekeen espazio batzuen eta, beste alde batetik, gazteen sozializazio espazio batzuen behaketak.

2. Arloko egoera

Esan bezala, lan hau euskararen biziberritze testuinguruan kokatzen da; hau da, martxan dago euskararen hiztun eta erabilera-eremuen galera geldiarazteko eta hizkuntza bizitzako esparru guztietan berreskuratzeko nahiz erabilera-eremu berriak sortzeko proiektua (Hinton, 2001; Flors eta beste, 2020). Hala ere, euskararentzat testuinguru oztopatzailea da oraindik Lizarra; izan ere, hizkuntza gutxitu batentzat testuinguru oztopatzailea zenbait faktore konplexuren elkarrekintzan oinarritzen da, eta Fishman-en (1991) arabera, testuinguru hauek hizkuntza gutxituaren biziraupenean eragin zuzena dute. Hauek, batez ere hiru dimentsio nagusitan bana daitezke: Lehenik, dimentsio demografikoan, non hiztun-dentsitate baxua nagusi den (Bastardas, 2016; Toledo, 2019). Bigarrenik, botereharremanen eta estatus sozialaren dimentsioan (Bastardas, 2016), non hizkuntza gutxituak erabilera-eremu mugatuak dituen eta hizkuntza nagusiaren presio handia jasaten duen. Azkenik, esfera publikoan duen presentzia

edo, bestela esanda, instituzionalizazio maila baxua dago (Marten eta beste, 2012), hezkuntza-sisteman, administrazio publikoan eta hedabideetan presentzia urria izanik.

Horrelako testuinguruetan, beraz, zailagoa izaten da hizkuntza gutxitua erabiltzea. Hala ere, Amorrortu eta beste (2017) azaldu bezala, hizkuntza gutxitua erabiltzea posible da, baita muda linguistiko egonkorra egitea ere, hots, hizkuntza bat egitetik bestea egitera pasatzea eguneroko ohiko elkarrekintzetan (Pujolar eta beste, 2010), nahiz eta gaztelania nagusi izan eguneroko bizitzan. Horretarako, bi faktore nagusi elkartu behar dira, euskarazko sare sozial esanguratsuak izatea –familia, lagunak edo lankideak, esaterako– eta hiztunaren jarrera proaktiboa edo konpromiso pertsonala (Amorrortu eta beste, 2017).

Testuinguru honetan kokatzen da euskara Lizarran, hots, testuinguru oztopatzailea dauka euskarak bertan. Hain zuzen ere, Lizarrerrian %5,9ko euskararen erabilera dago, Nafarroako ipar mendebaldean, esaterako, %34,5eko erabilera dagoen bitartean. Hala ere, kontuan izan behar da Lizarrerrian Nafarroa hegoaldean baino euskara gehiago egiten dela, bertan %0,2ko erabilera baitago (Soziolinguistika klusterra, 2021).

Gainera, Lizarran bertan aurretik egin diren lan batzuen arabera, gazteek euren egunerokoan ez dute euskaraz hitz egiten edo oso gutxi egiten dute, nahiz eta batzuk erabiltzen saiatu. Hala ere, gazte hauek toki batzuetan euskara gehiago erabiltzen dute, unibertsitatean, esaterako. Tokiez gain, momentu edo egoera konkretuen arabera hizkuntza alda dezakete gazteek: euskaraz egiten dute norbait beraiekin euskaraz hitz egiten hastean edo dendariak euskaraz dakitela dakitenean, adibidez. Azkenik, pertsonaren arabera ere izan daiteke hizkuntza hautua; izan ere, euskararen sinbolo diren pertsonak identifikatzen dituztenean hauei euskaraz egiten diete (Pardina, 2022).

Gazteek eguneroko bizitzan momentu eta toki bakoitzean eta pertsona bakoitzarekin euskararen erabilera ezberdina egiten duten bezala, horrelako testuinguru oztopatzaileetan euskarak ez dauka presentzia berbera eremu guztietan. Hain zuzen ere, hizkuntza gutxitu batzuen kasuan, hizkuntza gutxitua kultur munduan mantentzen da gehienbat; esaterako, Irlandako kasuan, webgune gehienak ingelesez daude, eta gaelikoz daudenak kultura-arlokoak izan ohi dira, musika edo hizkuntza bera, adibidez. Gainera, irratan musika gaelikoz entzun daiteke, baina albisteak ingelesez ematen dira (Garland, 2006). Antzeko egoera gerta daiteke euskararekin ere, Joly-k (2007) azaldu bezala, kultur jarduera batzuk euskararekin lotzen baitira euskaraz egiten ez den eremuetan ere, Ipar Euskal Herrian, esaterako. Horren adibide garbia litzateke bertsolaritza, honen eta euskararen arteko lotura naturaltasunez egiten baita baina, gainera, Joly-ren (2007) esanetan, abestiekin eta antzerkiekin antzeko zerbait egiten dute euskaldun batzuek.

Hain zuzen ere, hizkuntza sozializazioaren testuinguruan, aipatutakoak bezalako kultura adierazpenek garrantzi handia dute, hizkuntza gutxituen egoera azaltzen lagun dezaketelako praktika sinboliko gisa (Amezaga, 1994). Hain zuzen, hizkuntza gutxituak biziberritzeko, komunitatearen parte-hartzea ezinbestekoa da, eta arteen bidezko ekimenak eraginkorrak izan daitezke, hizkuntza eta kultura emantzipazioa sustatuz (Cru & Farfán, 2020). Musika, hizkuntza gutxituen kasuan, nortasun, harrotasun eta batasun sentimenduak indartzeko erabili izan da (Jerome, 2022).

3. Ikerketaren muina

Atal honetan, lehenik, ikerketaren helburuak eta metodologia finkatuko dira. Ondoren, azterketaren lehen emaitza batzuk aurkeztuko dira.

3.1. Helburuak

Lan honen helburua Lizarran jai giroan kaleetan zehar euskarak duen presentzia ikustea izango da; zehatzago, jai giroan euskarak zein leku daukan ikustea, aurrerago tesiaren helburuak hots, hizkuntza sozializazioaren bidez gazteen euskaltzetasuna nola eraikitzen eta egikaritzen den aztertzeko aurrekari edo hastapen gisa.

Gainera, euskarak presentzia handiena izan dezakeen denbora librearekin edo aisialdiarekin lotutako espazioak identifikatzeko eta bertan euskarak duen presentzia ezagutzeko lehen urratsa eman nahi da, festa girotik kanpo hainbat taberna eta kanpina behatuz, eta ikastolaren eta dantza taldearen behaketak, esaterako, aurrerago egiteko utziz.

3.2 Metodologia

Lan hau garatzeko 16 behaketa egin dira, horietatik 13 Lizarran bertan, beste 2 Lizarrako kanpinean eta beste bat Villatuertan, hemen ere Lizarrako gazteak egotea aurreikusten baitzen.

Behaketa hauetako gehienak Lizarran egun berezitzat hartu daitezkeenetan egin dira, hots, Puy jaietan, Erdi Aroko azokan, Lizarrako jaietan, San Andres ferietan, herri inauterietan, Korrika pasatu zen egunean, Lizarrako egunean eta, azkenik Lizarraldeko gazte egunean. Egundauetan herria behatuta ikusi nahi izan da bereziki festa giroan euskarak zein presentzia duen herrian, egundauetan euskarak presentzia handiagoa izan zezakeela pentsatuta (Amezaga, 1994). Hala, egundauetan herriko kaleetan zehar bueltara aritu nintzen ikusten nuen guztia apuntatuz eta, bereziki, musika eta jendea zegoen tokietara hurbilduz.

Bestalde, bestelako behaketa batzuk ere egin dira. Alde batetik, Lizarra kanpina behatu da birritan: Euskal Jaia antolatu zuten egunean eta abuztuko beste egun batean, kanpinera Gipuzkoar euskaldun asko joaten direnez, euskararen arnasgunetzat funtziona zezakeelakoan. Beste alde batetik, Lizarrako hiru taberna behatu nituen –Ametsa, Katxetas eta Berri- egundau normal batean, hauek izanik euskararekin lotura estuena dutenak.

1. taula. Lizarraldean egindako behaketa kopurua eta hauen iraupena.

Landa lanerako teknika	Kopurua	Data	Behaketaren iraupena (ordu:minutu)
Behaketak	16	Puy jaiak: 2023-05-20 goizean	7:30
		Puy jaiak: 2023-05-20 gauean	3:30
		Puy jaiak: 2023-05-21 goizean	3:30
		Puy jaiak: 2023-05-25 arratsaldean	1:30
		Erdi Aroko azoka: 2023-07-30 egundau osoan zehar	12:00
		Lizarrako jaiak: 2023-08-04	13:00
		Lizarrako jaiak: 2023-08-05	12:30
		Abuztua kanpinean. Euskal Jaia: 2023-08-19	8:30
		Abuztua amaiera kanpinean: 2023-08-28	1:30
		San Andres feriak: 2023-12-01, gaia	6:00
		San Andres feriak: 2023-12-02, goiza	4:00
		Lizarra, Ametsa, Katxetas eta Berri tabernak: 2023-12-17	5:30
		Herri Inauteriak: 2024-02-3, egundau	5:00
		Korrika: 2024-03-17, arratsaldea eta gaia	3:45
		Lizarrako egundau: 2024-04-13	10:00
		Villatuerta, Lizarraldeko gazte egundau: 2024-04-20, egundau	4:30
	Guztira	16 Behaketa	102:15 ordu

Aipatutako behaketa egiteko, arreta handiz ikusi eta entzun behar izan da inguruko guztia; bestela esanda, inguru guztia ondo behatu behar da, eta gaiarekin lotura edo eragina izan dezakeen guztia apuntatu. Garrantzitsua da xehetasunetan arreta jartzea eta objektiboa izaten saiatzea.

Herriarrek ikertzailea behaketa bat egiten ari dela ikus ez dezaten, momentuan guztia koaderno batean idatzi beharrean, mugikor bidez oharrak apuntatu edota nork bere buruari audioak bidaltzea komeni da. Hala, behaketa amaitutako momentuan pasatu behar dira oharroko koadernora, modu antolatuan, behaketa erregistratuta gera dadin.

Behin behaketa idatzita, emaitzak atera ahal izateko, kodeketa gauzatu da eta, QualCoder aplikazioaren laguntzaz datuok kodeetan sailkatutakoan, hauek aztertu eta emaitzak atera dira.

3.3 Emaidzak²

Lehenik, Lizarrako egun berezietako erabilerari dagokionez, euskararen presentzia urria da kalean, gaztelania izanik hizkuntza nagusia. Euskara pertsona eta momentu zehatzetan entzuten da batik bat, adibidez guraso gazte batzuek seme-alabekin komunikatzean. Hala ere, euskaraz aritzen den helduen talde txiki bat identifikatu da. Herritar hauek euskarari lotutako ekintza edota egoera guztietan parte hartzen dute eta, beraz, elkar ezagutzen dute eta badakite norekin hitz egin dezaketen euskaraz.

Bigarrenik, Euskal Herriko beste txokoetatik (bereziki Gipuzkoatik) datozen bisitariak nabarmen handitzen dute euskararen presentzia, bereziki feria eta jai garaietan (1). Bisitari hauen artean asko dira Lizarran bigarren etxebizitza dutenak edota kanpinera asteburuetan edo jai duten guztietan joaten direnak. Gainera, aipagarria da euskal kulturako erreferente askoren presentzia (bertsolariak, kirolariak, musikariak) kanpinean, honek ere euskararen presentzia indartzen baitu.

- (1) Publikoaren aldetik, konturatu naiz jada jendea ez dagoela zuri-gorritz jantzita, egunean zehar ez bezala, eta horrek esan nahi du, ziurrenik, jada publikoaren zati handi bat ez dela Lizarrakoa. Gainera, alde batetik, gipuzkeraz zebiltzan gazte dezente entzun ditut eta, beraz, gipuzkoatik jende asko etorri da Lizarrako jaietara eta, beste alde batetik, Bergarako 5-6 gazte ikusi ditut txosnagunean. Beraietako batek azaldu dit Iratxe kanpinean daudela guztiak eta aprobetxatu dutela Lizarrako jaietara etortzeko. Espero nuena, gipuzkoarrak dira bertan dauden asko, eta badirudi horrek Lizarran euskararen presentzia igotzen duela. (BLJ1)

Hirugarrenik, euskararen presentzia gune espezifikoetan kontzentratzen da eta, dirudienez, hauek sare garrantzitsua osatzen dute herrian. Hezkuntza-zentroez gain, kanpinak euskararen arnagune esanguratsu gisa funtzionatzen du, ohikotasunez euskaraz bizi diren gipuzkoar asko joaten baitira bertara eta, hala, bertan bildutako jendeak euskaraz bizitzeko aukera paregabea baitu (2).

- (2) denbora egiteko, kanpineko tabernara joan gara. Ordu erdi inguruan 20-30 pertsona pasa dira gu gauden ingurutik eta, bi emakume nagusi eta bi haur salbu, beste guztiak euskaraz dabilta. Gehienak gipuzkoarrez. Markel³ harri eta zur gelditu da, behin eta berriz errepikatuz kanpin honetako euskararen erabilera %80-90 izango dela. Nik ez dut uste horrenbestekoa izango denik, baina bai ziurrenik %60-70 ingurukoa. Pentsatzen gelditu gara ea zergatik etorriko den horrenbeste euskaldun kanpin honetara. Euskaltzaleak bultzatuta agian? Baina herria ez da oso euskalduna. Auskalo. (BLJ1)

Kanpina alde batera utzi eta herrian zentratuta, badirudi La Bota peña ere euskararen arnagune izan daitekeela herrian, honek ere paper funtsezkoa jokatzen baitu komunitate euskaldunaren bilgune bezala, kultur eskaintza aberatsa euskaraz eskainiz eta jende euskaltzalea erakarriz. Hala, San Andres ferian bertan antolatutako bertso saioan ikusi bezala, bertan gailentzen den hizkuntza euskara dela esan daiteke eta, are gehiago, bertaratzen direnek euskara hizketagai bihurtu hartu ohi dute.

Honekin lotuta, tabernei dagokienez, hainbat establezimenduk euskararen aldeko apustu garbia egiten dute: Katxetas eta Berri dira horietako bi, baina bereziki Ametsa tabernak euskararen erabilera naturala sustatzen du bere eguneroko jardunean. Hain zuzen ere, Ametsako zerbitzariak euskaraz ulertzen duten guztiei euskaraz egiten diete, baita euskaraz dakiten guztiek zerbitzari hauei ere. Are gehiago, batzuetan zerbitzariak euskaraz egiten diete bezeroek eta gero bezero batzuen artean gazteleraz jarraitzen dute. Pentsa daiteke, beraz, Ametsako zerbitzariak euskararen sinbolo direla, nire oharretan iradoki nuen moduan (3).

- (3) oraingoan mutil horietako bat (jabea, esango nuke) ez zegoen eta bere ordezkaria neska gazte samar bat zegoen (30-35 urte inguru). Noski, euskara hutsean artatu gaituzte. Hala ere, deigarria egin zait kontu bat: benetan da arnasleku, bertara joaten diren ia guztiek egiten dute euskaraz, eta

² Izen guztiak asmatutakoak dira.

³ Markel ikertzailearekin Lizarrara joandako konplize bat da.

zerbitzariari guzti-guztiek egiten diete euskaraz, baina bezero batzuek gero beraien artean gazteleraz egiten zuten. Euskararen sinbolo izango dira Ametsako zerbitzariak. (BLJX)

Halaber, urtean zehar jaietako txosnek eta Santiago plazak euskararen gune dinamiko gisa funtzionatzen dute. Azken honetan, bereziki Garean elkarteak antolatzen dituen ekintza ugariari esker gertatzen da hori hala nola, jarraian aipatuko ditugun irrintzi lehiaketa bezalako kultur eskaintzei esker. Hain zuzen ere, kultur eskaintza horiek euskararen presentzia eta erabilera indartzen dute espazio publikoan.

Azkenik, euskarak presentzia nabarmena du Lizarran musika, ikuskizun eta euskal kulturari lotutako jardueretan, hots, kultur adierazpenetan. Musika da euskarak presentzia handiena duen arloa, bereziki aipatutako hiru tabernetako eta kanpineko musikari dagokionean, gehiena euskaraz izaten baita (4). Bestalde, musikari lotuta dauden beste hainbat ekintza edo eskaintzatan ere presentzia handia dauka euskarak. Hauetako bat Garean euskaldunen elkarteak antolatzen dituen Lizarra Kantuz-en saioak izan daitezke, non herritarrek euskarazko abestiak abesteko elkartzen diren eta herrian zehar ibiltzen diren abesten, hilean behin. Euskarak presentzia handia daukan beste eskaintza bat kontzertuena da baina, kasu honetan, presentzia hori antolatzaileen arabera da; izan ere, Garean elkarteak, La Bota peñak edo jai batzordeek antolatutako kontzertuak euskaraz izaten dira, baina udalak antolatutakoak ez.

- (4) Aita kafea eta mostoa eskatzen ari zen bitartean, laukotearen elkarriketa deszifratu ezinda (hizkuntza bakarrik), musikari erreparatzea erabaki dut: Pirritx eta Porrotxen ahoa bizi, belarriak prest. Interesgarria iruditu zait eguerdian taberna batean bazkalordua girotzeko pailazoak jartzea. Apuntatuta, ea zer datorren hurrengo... Huntzaren abestia hasi da jarraian, eta aita eta biok kafearekin eta mostoarekin kanpora irten gara. (...) Hirugarren abestia ere euskaraz, laugarrena ere bai. Aita niri hizketan dabil, eta konturatu berri naiz ez naizela kasurik egiten ari. Musikak bahitu nau, barrutik, baina entzuten ari nintzen abestiak abesten ari nintzen. Bat-batean musika gaztelerara pasatu da, Aiora Renteriak egindako Fitoren abestiren baten bertsioa, Fitoren beste kantaren bat... eta berriro euskara. ETS, Gatibu, Izaro, berriro Huntza... gaur egungo abestiak dira, ez oso zaharrak. (BLLFDP4)

Amaitzeko, euskal kulturari lotutako beste jarduera batzuek ere euskarari presentzia ematen diote. Bertsolaritzak, euskal mitologiak (bereziki herri inauterietan), txalapartak, trikitiak eta panderoak nahiz euskal dantzek euskararekin lotura estua dute eta, aldi berean, presentzia handia daukate herrian, behatutako jai egunetan. Larraiza dantza taldeak, adibidez, herrian ikuskizun ugari eskaintzen du eta, euskal kulturarekin lotura zuzena izateaz gain, euskaraz funtzionatzen du, hots, protokolo linguistiko zehatzak dituzte, euskaraz funtzionatzea erabaki baitute eta hori sustatzen saiatzen dira. Gainera, herri kirolak eta irrintziak ere euskal munduari ikusgarritasuna ematen diote Lizarran eta, behatutako jai egunen barruan, hauek antolatzen diren egunetan euskara gehiago entzuten da Santiago plazan.

4. Ikerketaren ondorioak

Emaitzetan ikusi bezala, Lizarran euskararen presentzia eguneroko bizitzan mugatua da, espero zen bezala (Soziolinguistika klusterra, 2021), gaztelania nagusi izanik, baina hizkuntzak gune eta jarduera zehatzetan indar handia duela esan daiteke. Euskararen erabilera pertsona eta une jakinetan kontzentratzen da, eta hau jarrera proaktiboaren eta konpromiso pertsonalaren eraginez izan daiteke (Amorrotu eta beste, 2017). Gainera, pentsa daiteke pertsona horiek euskararen sinbolo gisa funtzionatzen dutela eta, Goirigolzarri eta besteren (2019) nahiz Pardinaren (2022) datuekin bat etorriz, hori dela erabileran laguntzen dien baldintzetako bat. Gainera, Euskal Herriko beste lurraldeetako bisitariak, bereziki Gipuzkoatik datozenek, euskararen presentzia handitzen dute, batez ere jai eta feria garaietan.

Bestalde, ikusi dugu alde batetik, euskararen presentzia Hernandezek eta bestek (2020) nahiz O'Rourke-k eta Walsh-ek (2020) azaldutako espazio seguruak ematen duten gune espezifikoean biltzen dela, hala nola kanpina, La Bota peña, Ametsa, Katxetas eta Berri tabernak eta Santiago plaza. Beste alde batetik, aldiz, jai giroan behintzat, jarduera edota eskaintza batzuetan euskarak askoz presentzia handiagoa dauka, hots, musika nahiz euskal kulturari lotutako jarduerak bezalako kultur adierazpenetan, Irlandan (Garland, 2006) nahiz Ipar Euskal Herrian (Joly, 2007) gertatzen den bezala. Hauei esker, euskaraz funtzionatzeaz eta, beraz, hizkuntzaren presentzia bere horretan handitzeaz gain, euskal

munduari ikusgarritasun handiagoa ematen diote. Hau bat dator Jerome-k (2022) azaldutakoarekin, kasu honetan ere musika euskal nortasun, harrotasun eta batasun sentimenduak indartzeko erabiltzen dela pentsa baitaiteke.

Beraz, oro har, Lizarran euskara pertsona, gune eta jarduera zehatzetan kontzentratzen da eta kalean duen presentzia urria da, baina bisitarien, euskal komunitatearen eta kultur ekintzen bidez euskararen erabilera eta biziberritzea bultzatzen da, honek gazteen hizkuntza sozializazioan eragina izanik. Honek erakusten du euskara komunitatearen biziraupenerako funtsezkoak direla identifikatutako gune eta jarduera hauek, baina aldi berean, agerian uzten du hizkuntza normalizaziorako bidean dauden erronkak.

Hala ere, lan honetan lortutako emaitzak aurrerago beste behaketa batzuek erakusten dutenarekin osatu beharko dira.

5. Etorkizunerako planteatutako norabidea

Aurrera begira, alde batetik, Lizarran behaketa gehiago egitea planteatzen da, batzuk euskararentzat Lizarran klabe izan daitezkeen eremu edo praktika komunitateak behatzeko, hala nola Larraiza dantza taldea eta ikastola, eta beste batzuk parte hartzaile batzuekin ibilbidea ezagutzeko, ibilbide gidatuak (Hernandez eta beste, 2020) eginez. Bestalde, Lizarrako gazte euskaltzaleak elkarrizketatu nahi dira, hizkuntza praktika eta hizkuntza ideologiei buruzko gaiak eta galderak planteatuz, hauen hizkuntza sozializazioa ezagutzeko asmotan, behaketetan ikusitakoa kontrastatuz.

6. Erreferentziak

- Altuna Ramírez, J. (2023). *Hizkuntzaren funanbulistikak. Hizkuntza-sozializazioa kirol eremuan adin eta generoan ardaztuta* [Doktore-tesia, UPV/EHU]. ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/62640>
- Amezaga, J. (1994). *Herri kultura: euskal kultura eta kultura popularrak*. Universidad del País Vasco.
- Amorrortu, E., Ortega, A., & Goirigolzarri, J. (2017). Euskararen hiztun aktibo bihurtzeko gakoak. *BAT soziolinguistika aldizkaria*, 104(3), 11-49.
- Bastardas Boada, A. (2016). Ecología lingüística y lenguas minorizadas: algunas notas sobre el desarrollo del campo. In *53 reflexiones sobre aspectos de la fonética y otros temas de lingüística* (pp. 451-458). Universidad de Barcelona.
- Bayley, R., & Schecter, S. R. (2003). Toward a dynamic model of language socialization. *Bilingual education and bilingualism*, 1-8.
- Cru, J., & Farfán, J. A. (2020). Revitalización de lenguas indígenas a través de la música en México. *Enfoques* (163 – 182). ISSN: 2007-6851.
- Duff, P. A. (2011). Second language socialization. *The handbook of language socialization*, 564-586.
- Dufur, A. (2012). *Lizarra, euskararen biziberritzetik indarberritzera*. Asmoz fundazioa.
- Fishman, J. A. (1991). *Reversing language shift: Theoretical and empirical foundations of assistance to threatened languages* (Vol. 76). Multilingual matters.
- Flores, Córdova & Cru (2020). *Guía de revitalización lingüística: para una gestión formada e informada*. https://www.garabide.eus/fitxategiak/dokumentuak/doks/guia_de_revitalizacion_linguapax-uabjo.pdf
- Garland, E. (2006). Can minority languages be saved. *The Futurist*, 40(4), 31-36.
- Garrett, P. B. (2011). Language socialization and language shift. *The handbook of language socialization*, 515-535.
- Goirigolzarri, J., Amorrortu, E. & Ortega, A. (2019). “Activación lingüística de jóvenes neohablantes de euskera en la universidad”, in Ramallo, F., Amorrortu, E. & Puigdevall, M. (arg.), *Neohablantes de lenguas minorizadas en el Estado español*, 23-45. Madril: Iberoamericana Vervuert.
- Goodwin, M. H., & Kyratzis, A. (2011). Peer language socialization. *The handbook of language socialization*, 365-390.
- Hernandez, J.M., Beitia, I., Ozaita, J., Santamaria, A., Iñarra, M. & Altuna, O. (2020). *Gazteak euskararen eszenatokian: erabileraren auzia: euskararen erabilerarekin lotura duten faktore kualitatiboak*. Soziolinguistika klusterra.
- Hinton, L. (2001). Language revitalization: An overview. *The green book of language revitalization in practice*, New York: Academic Press. 1-18.

- Jerome, C., Perry, E. J., & Ting, S. H. (2022). Malaysian pop music in the minority language: a tool for forging unity and a common identity? *International Journal of Social Science Research*, 4(1), 401-413.
- Joly, L. (2007). Euskara eta euskal kultura Iparraldean: iritzien eta eskaintzaren azterketa bat. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, (65), 63-71.
- Kasares, P. (2014). *Euskaldun hazi Nafarroan: euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Marten, H. F., Van Mensel, L., & Gorter, D. (2012). Studying minority languages in the linguistic landscape. In *Minority languages in the linguistic landscape* (pp. 1-15). London: Palgrave Macmillan UK.
- Nonaka, A. M. (2011). Language socialization and language endangerment. *The handbook of language socialization*, 610-630.
- Ochs, E. & Schieffelin, B. B. (1984). Language acquisition and socialization: Three developmental stories and their implications. In R. A. Shweder and R. A. Levine (eds.), *Culture Theory: Essays on Mind, Self, and Emotion*. 276 – 320. New York: Cambridge University Press.
- Ochs, E., & Schieffelin, B. B. (2011). The theory of language socialization. *The handbook of language socialization*, 1-21.
- O'Rourke, B & Walsh, J. (2020). Ciorcail Chomhrá–'Safe Spaces' for the Cúpla Focal. In *New Speakers of Irish in the Global Context* (pp. 149-168). Routledge.
- Pardina, A. (2022). D ereduan euskaldundutako Lizarrako hiztun berri gazteen euskararen erabilera. *BAT soziolinguistika aldizkaria* (123), 235-261.
- Pujolar, J., Gonzàlez Balletbò, I., & Martínez, R. (2010). Les mudes lingüístiques dels joves catalans. *Llengua i ús: Revista tècnica de política lingüística* (48).
- Riley, K. C. (2011). Language socialization and language ideologies. *The handbook of language socialization*, 493-514.
- Soziolinguistika klusterra (2021). *Hizkuntzen erabileraren kale neurketa. Nafarroa Garaia 2021*. Eskuragarri: <https://soziolinguistika.eus/eu/proiektua/hizkuntzen-erabileraren-kale-neurketa-euskal-herria-2021-2/> [azken kontsulta: 2025-01-08]
- Toledo, A. (2019). *Hizkuntzen galera Europar Batasunean: Arriskurik ba ote da oraindik?*. Asmoz fundazioa.

7. Eskerrak eta oharrak

Ikerketa hau, besteak beste, Eusko Jaurlaritzak emandako PRE_2024_2_0140 diru laguntzari eta ELEBILAB ikertaldeari diruz lagundutako IT1627-22 proiektuari esker landu da.

Era berean, doktorego tesiko zuzendari diren Ibon Manterolari (UPV/EHU) eta Jone Goirigolzarri (Deustuko unibertsitatea) eskerrak eman nahi dizkiet, gidaritza lan guztiagatik.